

Ebazpena 2019ko irailaren 30ekoa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; AUDIT Batzordearen kide batzuk kargutik kentzea eta Batzordearen kide berriak izendatzea xedatzen duena.

13/2012 Legearen, ekainaren 28koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa, 8.3.d) artikulua xedatze duenari jarraiki, Zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta.

Horregatik, 2019ko irailaren 27an Aholku Batzordeak egindako bileran adostutakoaren arabera eta esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ondoren zehazten diren AUDIT Batzordeko kide hauek kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea:

Batzordeburua: José Joaquín Mira

Batzordekideak: Nekane Arratibel, María Paz Álvarez eta Jaime Sagarduy.

Bigarrena.- Aholku Batzordeak proposatuta, AUDIT Batzordeko kideak izendatzea:

Batzordeburua: Antonio López Cabanes

Batzordekideak: Elena Valderrama eta M^a Carmen Navarro.

Hirugarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 30a.



EVA FERREIRA GARCÍA
Unibasq-eko zuzendaria